



2019/ 0822 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA.- Hernanin, 2019/05/06.

2019ko otsailaren 26an burututako Udal Osoko Bilkuran, udal jabetzako etxebizitzak adineko pertsona autonomoentzako zuzkidurako bizitokiak alokairuan esleitzeko zozketaren oinarriak onartu zituen.

Egin beharreko argitalpenak egin ondoren, eta esleipen prozesu honetan eskabideak aurkezteko ezarritako epea 2019ko apirilaren 02an amaitu ondoren, sei eskaera aurkeztu ziren.

Oinarrien 4. artikuluan dioena ikusita,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 2019ko urtarrilaren 31a aurretik (hau barne) dauden datuen arabera, ondoko eskatzaile hauek, betebeharreko betebeharrak betetzen dituztela ziurtatu ondoren, hiru udal etxebizitzan alokairurako, **behin behinekoz onartzea**:

Sarrera Erregistroa	NAN
2104	15160585C
2138	15150751F
2140	07033238E
2146	15160850D

Bigarrena.- Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 2019ko urtarrilaren 31a aurretik (hau barne) dauden datuen arabera, goian aipatutako oinarrietan 2. artikuluan zehazten diren ondorengo baldintzak ez betetzeagatik:

2.1. Adinari dagokionez:

Eskatzaileak edo haren kideak 70 urteak beteak izan behar dituzte.

2.2. Bizikidetzaren unitateari dagokionez gehienez ere bi lagunez osatua egongo da.

Ondoko eskatzaileak **ez onartua** izatea:

Sarrera Erregistroa	NAN	Betetzen ez Diren baldintzak
1850	15868543 S	2.1. artikulua
2192	Y0347465 H	2.2 artikulua

Hirugarrena.- Ebazpen hau udalaren web orrian eta iragarki taulan jarriko da ikusgai, eta ohiko egunkarietan aipamen bat argitaratuko da, eta era berean, interes dunei jakinarazpena bidaliko zaie. Web orrian argitaratzen denetik, 10 egunetako epea edukiko dute interesatuek alegazioak jartzeko, bazterketa justifikatu gabe dagoela jotzen bada.

Luis Intxauspe Arozamena alkatea agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berriazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko** epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertze errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berriazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabeteko** epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iritzitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernani, 2019/05/06.

Idazkariordea,